



# Himalaya, l'enfance d'un chef



**Eric Valli,  
gogoz  
erbestera**

## Tibet saminaren erretratua

Aurreko astean estreinatu zuten Ipar Euskal Herrian Himalaya, l'enfance d'un chef, Eric Valli frantziarraren filma. Vallik Tibeteko familia baten bizimoduaren erretratua egin nahi izan du, eta familia horren bidez belaunaldien arteko lokarri etenak, Txina eta Tibeten arteko liskarrak, modernitatearen eta usadioen arteko ezkonezinak islatu. Filmak harrera bikaina izan du jendartean, eta Oscar sarietako hautagai izateko zerrendan dago. Nepalgo aurreneko filma da sari preziatua lortzeko zerrendan horretan.

Ramon Oñasagasti

«NIRE txikitako ametsa Geronimo topatzea zen, baina 150 urte geroago jaiotzea egokitu zitzaidan», adierazi zuen Eric Valli zuzendariak filmaren aurkezpenean. Tinle, fimeko protagonista, «bera da gaur egungo Geronimo», Valliren hitzetan, «azken mohikanoa».

Mendez mende, baita gaur egun ere, yak karabanak abiatzen dira Dolpotik, Himalaya handiosaren ipar-mendebaldean altzoa egin zuen herrixkatik, Tibeteko goi-ordoki arrea hezeten duten antziretako gatza hegoaldeko ibar jori eta aberatsagoetara garraiatzeko eta trukean bestelako elikagaiak etxeratzeko. Belaunaldiz belaunaldi, horretan jardun du Tinleren familiak. Tinle herrixkako buruetako bat da, eta Lhapka semearen esku utzi du yak karabanaren gidaritzara, ohore handi bat bailitzen. Abiatzear dela, ordea, Lhapka hilda agertuko da, eta aitak Karma seme gazteenaren bizkar jaurtiko du bere amorru guztia, eta baita heriotzaren ardura ere.

Karmak, sineskeria guztiei itzuri egin, aitaren haserrea begitan hartu eta herriko gazteak lagun dituela yak karabana berak gidatzea erabakiko du. 5.000 metroz gaindi, lehen lepoan karabana desagertzen ikusi orduko, Tinle aitak, bere beste semeetako bat, Norbu lama eta beste hainbat gazte aldamenean harturik, beste karabana bat antolatuko du. Tinlek arbasoen ohiturak, jainkoekiko gutzia eta Tibeteko sinesmen guz-

tia zamaten du gatzarekin batera. Karmak, katebegi hautsiaren zama darama yaken bizkarrean.

Gizakiak imajina dezakeen eszenatoki handiengan, Tibet mugagabe eta aldi berean hesituan, hainbat osagai bildu ditu Vallik bere filmera: klanen arteko gatazkak, belaunaldien arteko etenak, tibetarren antzinako usadioa, bidaia inizatikoak, modernitatearen eta tradizioaren arteko artesi gero eta sakonagoa, bizi-baldintza gogorren aurkako borroka, mehatxatutako eta larriki zauritutako kultura baten agonia... Tibet saminaren erretratu leiala, finean. «Film osoak errealitatean du oinarria, eta protagonistak Dolpoko herritarrek berak dira. Estreinatzen ari garen egunotan, Tinle yak karabana bat gidatzen izango da, eta Dolpo herrixkan filmean erakusten den egunerokotasun pausatua bizitzen ariko dira. Badira aldaketa txikiak, hala ere: hila ez zen semea izan, anaia baizik, baina gainerakoan leial jokatu dut errealitatearekin», azaldu du Vallik.

Tibeteko inbasioaren ondotik, txinatarrak gatzaren jabe egin dira eta, ezin eraman gaiztoan, tibetarren karabana guztiak galarazten dituzte. Vallik jakinarazi duenez: «Gatza helburu industrialetarako erabiltzen dute txinatarrak. Ekonomia guztia aldatzen ari da, eta patu gaiztoena Tibet ari da pairatzen. Genozidio baten lekuko izaten ari gara», salatu du zuzendari frantziarrak. Dolpo da kultura tibetarren azken gotorlekuetako bat.

Eric Valli frantziarra da izatez, eta zurgina lanbidez. 17 urte zituela, ordea, etengabe bidaiatzeari ekin zion, argazkilaritza ofizioari erabat emana. Afganistanen bi urte bizi eta gero, herrialdez herrialde ibili zen, irudi eta bizipen bilduma oparoa osatu arte. 80ko hamarkadaren hasieran deskubritu zuen Dolpo, eta herrixka horretako bizimodu apalak, naturarekiko otzantasun hark erabat harrapatu zuen. Hizkuntza ikasi ere ikasi zuen, eta harrezkero egonaldi luzeak egingen ditu Tibetean, gogozko erbeste maitean. Filmeko protagonistak ere bi lagun zahar dira: Tinle buruzagia eta Norbu lama. «Tinle elurretako zaldun bat zen ezagutu nuenean, eta egun ere halaxe da. Norbu, berriz, ez zen sekula monasteriotik atera ezagutu nuenean», azaldu du Vallik. Himalayako menditzarren azpian, eguneroko bizimoduaren abentura eta naturarekiko morrontza apala islatu nahi izan ditu Vallik, *Himalaya l'enfance d'un chef* filmean.

Bederatzi hilabete behar izan ditu Eric Vallik filma amaitzeko, hasieran espero baino lau gehiago. Temperatura hotzek izan dute errua, -25°C gradutan filmatu behar izan baitute zenbaitetan. Horrek, nola ez, filma garestitza ere ekarri du; azkenean 12 milioi libera (300 milioi pezeta inguru) gastatu behar izan ditu Vallik. Aurki, Oscar sarietako aukeratuen artean sartzen den edo ez jakinaraziko dute, eta ohore hori badu, mundu osoaren begietara helduko da Tibeteko erretratu mingotsa. Hala izan edo ez, bi hilabete barru Katmandun estreinatzen denean, herritarrek merkatu beltzean erosi beharko dituzte txartelak.